Antxon: Habrá que votar que poner y que no. En vez de vetar a todos, votar cada caso; no sacar una normativa y no denegar a todos ese derecho.

Gilen: Gaiak eztabaida sortzen duela ikusita aztertuko dira gaiaren onurak eta kalteak.

Gilen: En vista de que el tema crea controversia, se analizarán los beneficios y perjuicios del tema.

Horrenbestez, 20:20etan amaitzen da Osoko Bilkura.

Sin más temas que tratar finaliza el Pleno a las 20:20.

DEBAKO UDALA

2019SPLE0014
14.Bilera: OHIKOA 2019/10/30

| | |
|---|---|
| Jorge González Endemaño<br>Behin-behineko idazkaria /Secretario accidental. | Gilen García Boyra<br>Alkatea /Alcalde |

2019SPLE0014
14.Bilera: OHIKOA 2019/10/30

**I ERANSKINA / ANEXO I:**

**Hondartzetako sorospen zerbitzuak Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatzea eskatzeko MOZIOA**

Jakina da Gipuzkoako hondartzetako sorospen zerbitzuak, beste zenbait zerbitzurekin batera, udalek ematen eta ordaintzen dituztela. Udalek finantzatzen dute, gehienbat, hondartzak egoera eta baldintza egokietan egotea, erabiltzaile gehienak udalerrikoak ez badira ere, maiz izaten baitira Euskal Herrikoak edo atzerritarrak. Herri horietako asko, gainera, txikiak dira, aurrekontu zein diru iturri mugatuak dituzte eta hondartzen mantenuak gastu handia suposatzen die biztanleko.
Jakina da, gainera, sorospen zerbitzu horietan lanean ari diren langileen lan baldintzak ez direla berdinak herriz herri, eta ez dutela beti lanaren duintasunik bermatzen.
Egoera hori aintzat hartuta, ondorengo mozioa aurkezten dugu udalbatzarrak aztertu eta, hala badagokio, onartu dezan:
1. Debako Udalak dei egiten dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, hondartzetako sorospen zerbitzua kudeatzen dugun udalokin elkarlanean, beharrezko kudeaketa egin dezala, Gipuzkoako hondartzetako sorospen zerbitzuak aldundiak kudea ditzan.

2. Debako Udalak dei egiten dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, hondartzen sorospen zerbitzua udalek kudeatzen duten bitartean, dirulaguntza lerro bat ireki dezala horien %100ko finantziazioan laguntzeko.

3. Debako Udalak dei egiten dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, Gipuzkoako hondartzetako sorospen zerbitzua kudeatzeko behar diren kontratu edota hitzarmenetan, 11/2014 Foru Araua ezartzeko. Horren bidez, foru sektore publikoko kontratazioan, erosketa publiko sozialki arduratsuari buruzko kontratu klausulak berma ditzan.

4. Debako Udalak mozio honen berri emango die Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Gipuzkoako Batzar Nagusiei.

**II. ERANSKINA /ANEXO II**

***GIZARTE LARRIALDI EGOERAK ARTATZEKO HARRERA-ETXEBIZITZA ARAUTZEN DUEN ARAUDIA***

**ZIOEN AZALPENA**

Araudi honen xedea ondokoa da: larrialdietan harrera egiteko, etxebizitzaren erabilera eta sarbidea arautzea.

Gizarte larrialdietarako etxebizitza honen xedea da, etxebizitza hau aldi baterako erabiltzeko aukera eskainita, 2. artikuluan zehaztutako premia / larrialdi egoerei erantzutea. Etxebizitza hau lagatzeak esan nahi du zerbitzu publiko bat eskaintzen dela; eta horrexegatik, Herri Administrazioen zerbitzuen eskaintza arautuko duen araubidea bete beharko dela; alegia, aldi baterako larrialdietarako etxebizitza erabiltzen duen pertsonak Debako Udalarekin duen harremana ez da alokairuari dagokion figura juridikoa izango. Etxebizitza inola ere ez da lagako mugarik gabeko aldi baterako.

12/2008 Legeak, abenduaren 5ekoak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, 42. artikuluan ezartzen duenaren arabera, *Udalen eskumena izango da, bakoitzari dagokion udal barrutian, ondorengo funtzioak betetzea: Euskal Gizarte Zerbitzuen Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoko oinarrizko arretarako gizarte zerbitzuak hornitzea.*

***REGLAMENTO REGULADOR DEL PISO DE ACOGIDA, PARA LA ATENCIÓN DE SITUACIONES DE URGENCIA SOCIAL.***

**EXPOSICIÓN DE MOTIVOS**

El presente reglamento tiene por objeto regular el uso y el acceso al piso de acogida de urgencia de carácter municipal

El objetivo de esta vivienda de emergencia social es dar respuesta a situaciones de urgencia / emergencia definidas en el artículo 2 del presente reglamento mediante el acceso temporal al uso de esta vivienda. La cesión de esta vivienda tiene carácter de prestación de un servicio público y debe atender, por lo tanto, a la normativa que regule la prestación de servicios de las Administraciones Públicas, es decir, la relación de la persona usuaria del piso de emergencia temporal con el Ayuntamiento de Deba o entidad que gestione el servicio no constituirá figura jurídica de arrendamiento. En ningún caso la cesión del piso se realizará por tiempo indefinido.

La Ley 12/2008, de 5 de diciembre de Servicios Sociales, establece, en su artículo 42 *que será competencia de los Ayuntamientos en el ámbito de sus respectivos términos municipales, la realización de las siguientes funciones: La provisión de los servicios sociales de atención primaria del Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales*.

Era berean, 185/2015 Dekretuak, urriaren 6koak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazioen eta zerbitzuen zorroari buruzkoak, 33 2 a) artikuluan udal eskumeneko zerbitzuak, prestazioak eta laguntza ekonomikoak garatzen ditu, eta aditzera ematen du, oinarrizko arretarako gizarte zerbitzuen artean, besteak beste, lojamendu Zerbitzuak / harrera-etxebizitzak egongo direla. *Hala, bi motatako lojamendu Zerbitzuak edo harrera-etxebizitzak egongo dira.*

A su vez, el Decreto 185/2015 de 6 de octubre de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales desarrolla en su artículo 33 2 a) los servicios y prestaciones, o ayudas económicas de competencia municipal e indica que, dentro de los servicios sociales de atención primaria, entre otros estarán: *los Servicio de alojamiento/ pisos de acogida. Existen dos tipos de Servicio de alojamiento o pisos de acogida:*

1. *Gizarte larrialdi egoerak artatzeko harrera-etxebizitzak. Etxebizitza hauetan lojamendua eskaintzen zaie iraupen laburreko egonaldia behar duten pertsonei eta bizikidetza unitateei, premia edo gizarte larrialdi baten ondorioz, etxebizitza gabeziari aurre egin ahal izateko.*
2. *Etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeak artatzeko etxebizitza.*

1. *Piso de acogida para la atención de situaciones de urgencia social. En los que se ofrece alojamiento a personas y unidades de convivencia que requieren una estancia de corta duración para poder hacer frente a la carencia de alojamiento derivada de una situación de emergencia o urgencia social.*
2. *Piso de acogida para mujeres víctimas de violencia doméstica.*

## I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

## CAPÍTULO I.- DISPOSICIONES GENERALES

1*. artikulua. Xedea*

Araudi honen xedea da udal etxebizitzaren erabilera eta sarbidea arautzea.

1.- Gizarte larrialdietarako etxebizitzaren xedea izango da aldi baterako premiazko harrera egitea. Hortaz, lojamendurik ez izatearen edota bizikidetza arazo larrien ondorioz

*Artículo 1. Objeto*

El presente reglamento tiene por objeto regular el uso y acceso al piso de acogida de urgencia de carácter municipal.

1.- El piso de emergencia social está destinado al acogimiento temporal de urgencia y sirve para atender situaciones críticas determinadas por la carencia de alojamiento y/o graves

sortzen diren egoera kritikoak artatzeko erabiliko da.

conflictos convivenciales.

2.- Egoera berezietan izan ezik, zerbitzu hau lojamendua eskaintzera mugatuko da, eta ez da inolako zaintzarik eskainiko. Era berean, etxebizitzan ez da bertan hartutako pertsonak zaintzeko langilerik izango. Hala ere, pertsonen, etxebizitza hau okupatzera bultzatu duen egoeraren eta Gizarte Zerbitzuen Sailak egingo duen esku-hartze planaren jarraipena egingo da.

2.- Salvo circunstancias especiales este servicio se limita a facilitar alojamiento no ejerciéndose en este piso tutela alguna ni existe en el mismo personal al cuidado de las personas acogidas, si bien se hará un seguimiento de las personas, de la situación que les ha llevado a ocupar esta vivienda y del plan de intervención desde el Departamento de Servicios Sociales.

3.- Larrialdietarako Etxebizitza bera pertsona edota bizikidetza unitate baten baino gehiagoren arazoak konpontzeko erabili ahal izango da aldi berean, baldin eta etxebizitzaren neurriek eta ekipamenduek horretarako aukera ematen badute. Onuradunek ezin izango dute inolako eskubiderik baliatu, etxebizitza horretan duten antzinatasuna tarteko, etxebizitza esklusiboki erabili ahal izateko.

3.- El mismo piso de emergencia puede ser utilizado simultáneamente para dar solución a problemas de personas y/o unidad convivencial distintas, siempre que las dimensiones y equipamientos del mismo lo permitan. En ningún caso podrá esgrimirse por parte de las personas beneficiarias ningún tipo de derecho sobre la utilización exclusiva de la vivienda en función de su antigüedad en el mismo.

*2. artikulua. Definizioak.*

*Artículo 2. Definiciones.*

Araudi honen ondorioetarako, etxebizitza gabeziaren ondorioz sortzen diren egoera kritikotzat hartuko dira:

A efectos de este Reglamento se entenderán como situaciones críticas de carencia de alojamiento:

1.- Epai judizial irmoaren bidez agindutako etxegabetzeak baliabide nahikoa ez izateagatik egiten ez diren ordainketen ondorioz, jabearen premien ondorioz, aurri adierazpenaren edo antzeko arazoen ondorioz bideratzen diren prozeduretan.

1.- Desahucios dictados por sentencia judicial firme en procedimientos seguidos ante la jurisdicción civil por falta de pago por insuficiencia de recursos, por necesidad del propietario, por declaración de ruina o similares.

2.- Udalak, harrera behar duen

2.- Declaración municipal de ruina

pertsonaren edo pertsonen etxebizitza dagoen eraikinaren berehalako aurri egoera adieraztea.

inminente de la edificación que sirva de residencia a la persona o personas necesitadas de la acogida.

3.- Hondamendiak, suteak, uholdeak eta bizikidetza unitatearen egoitzatzat erabiltzen den eraikina erabilezin bihurtzen duten antzeko fenomenoak.

3.- Catástrofe, incendio, inundación y fenómenos similares que inhabiliten la edificación que sirva de residencia de la unidad familiar.

4.- Familia arazo larria, pertsonen segurtasun fisikoa edo emozionala arriskuan jartzen duena.

4.- Conflicto familiar grave que pone en peligro la seguridad física o emocional de las personas.

5.- Lojamendu premia duten pertsonak, gizarteratze programaren batean parte hartzen eta bilakaera egokia izaten ari direnak. Kasu hauetan, lojamenduan egon ahal izateko, banakako arreta programan ezarritako ekintzak zehatz-mehatz bete beharko dira beti.

5.- Personas con necesidad de alojamiento que estén participando en un programa de inserción social con una evolución positiva. En estos casos la estancia en el alojamiento irá condicionada siempre al cumplimiento exhaustivo de las acciones establecidas en el marco del programa individual de atención.

6.- Bestelako larrialdi egoerak, gizarte txostenaren bidez behar bezala justifikatzen direnak.

6.- Otras situaciones de emergencia debidamente justificadas mediante informe social.

## II. KAPITULUA. ONURADUNAK.

## CAPITULO II. DE LAS PERSONAS BENEFICIARIAS

3.artikulua. Onuradun izan daitezkeenak zehaztea. Baldintza orokorrak.

Artículo 3. Determinación de las personas beneficiarias: Requisitos generales.

Deba udalerrian bizi diren pertsona edo bizikidetza unitate guztiek erabili ahal izango dute zerbitzua. Horretarako, gutxienez, 6 hilabeteko antzinatasun jarraitua izan beharko dute erroldan, eta arestiko artikuluan zehaztutako egoeraren batean egon beharko dute.

Puede ser usuaria de este servicio cualquier persona o unidad de convivencia, residente en el municipio de Deba, con una antigüedad mínima de 6 meses ininterrumpidos en el padrón, y que se encuentre en alguna de las situaciones señaladas en artículo anterior.

Salbuespen gisa, erroldaren betebeharra betetzen ez duten

Excepcionalmente, podrán acceder a estos servicios las personas que

pertsonek ere baliatu ahal izango dute zerbitzu hau, baldin eta salbuespenezko arrazoiek horrela jardutea aholkatzen badute. Horretarako, aldez aurretik, gizarte txostena egin beharko da eta organo eskudunak onarpena eman beharko du.

carezcan del requisito del empadronamiento, cuando motivos excepcionales así lo aconsejen, previo estudio, elaboración de informe social y su aprobación por el órgano competente.

4. artikulua. Zerbitzua erabiltzen duten pertsonen eskubideak eta betebeharrak.

Artículo 4. Derechos y Obligaciones de las personas usuarias del servicio.

4.1. Eskubideak eta betebeharrak:

4.1. Derechos y obligaciones:

Oro har, harreran hartutako pertsonek ondorengo betebeharrak izango dituzte, hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen pertsonen eta profesionalen eskubideei eta betebeharrei eta iradokizunen eta kexen araubideari buruzko Gutuna onartzen duen apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuan aurreikusten direnak.

Con carácter general, las personas acogidas disfrutarán de los derechos y obligaciones contemplados en el Decreto 64/2004 de 6 de abril, por el que se aprueba la Carta de derechos y obligaciones de las personas usuarias y profesionales de los servicios sociales en la Comunidad Autónoma del País Vasco y el régimen de sugerencias y quejas.

Hona hemen betebehar espezifiko horiek:

Serán obligaciones específicas;

1) Sarrera eskatzeko eta harrera-etxebizitza erabiltzeko eta gozatzeko, eta araudi honetan ezarritako arauak betetzeko konpromisoari buruzko agiria sinatzea.

1) Firmar el documento de solicitud de ingreso y de compromiso de cumplimiento de las normas establecidas en este reglamento para el uso y disfrute de la vivienda de acogida.

2) Zerbitzu hauek erabiltzera bultzatu duen egoera aldatzeko beharrezkoak diren kudeaketa administratiboak edota judizialak edota beste edozein motatakoak egitea. Gizarte Zerbitzuen Sailaren ustetan komenigarria baldin bada, neurri hauek Gizarte Zerbitzuen Sailak egingo duen esku-hartze planean zehaztu ahal izango dira. Plan

2) Efectuar las oportunas gestiones administrativas y/o judiciales y/o de cualquier otro orden necesarias para modificar la situación que ha provocado el uso de estos servicios. En caso de que, a juicio del Departamento de Servicios Sociales, sea conveniente, estas medidas podrán explicitarse en el plan de intervención que se realizará

hau harrera kontratuaren eranskin gisa joango den eta kontratuaren parte izango den agiria izango da.

desde el Departamento de Servicios Sociales, que se incluirá como documento anexo al contrato de acogimiento y que formará parte de él.

3) Gizarte zerbitzuen sailak eskatutako dokumentazioa beharrezko epean aurkeztea.

3) Aportar la documentación requerida por parte del Departamento de Servicios Sociales en el plazo debido.

4) Seme-alabak edo ardurapeko beste pertsona batzuk zaintzeaz arduratzea.

4) Responder del cuidado de sus hijos e hijas o de otras personas a su cargo

5) Baliabidea partekatzen duten pertsonen pentsamendu, iritzi, ideologia eta erlijio askatasuna errespetatzea.

5) Respetar la libertad de pensamiento, opinión, ideología y religión de las personas con las que comparte el recurso.

6) Harreran hartutako pertsonen artean arazoak edo desadostasunak baldin badaude, baliabidearen arduradun den erakundeak erabakitako neurriak betetzea.

6) Cumplir con las medidas acordadas por la entidad responsable del recurso en caso de conflictos o desacuerdos entre las personas acogidas.

7) Elkarrenganako errespetuan, tolerantzian eta lankidetzan oinarritutako jarrera izatea, etxebizitzan bizi diren pertsonen eta auzokideen arteko elkarbizitza errazteko. Hala, bizilagunen erkidegoa arautuko duten arauak betetzeko obligazioa ere izango dute.

7) Mostrar una conducta basada en el respeto mutuo, la tolerancia y la colaboración con el propósito de facilitar la convivencia entre las personas residentes y con la vecindad, obligándose también a cumplir las normas que rijan la comunidad de vecinos.

8) Etxebizitzan erabiltzaileen esku dauden ekipamenduak eta tresnak egokitasunez eta errespetuz erabiltzea.

8) Hacer un uso adecuado y respetuoso de los objetos, equipamiento y utensilios a su disposición en la vivienda.

9) Etxebizitza garbitzeaz eta norberaren gauzez arduratzea. Etxebizitza familia-unitate batek baino gehiagok partekatu behar baldin badute, antolaketari buruzko eta guztiek erabiltzen dituzten gelen (sukaldea, egongela, bainugela, eskailera, ataria) garbiketari buruzko

9) Responsabilizarse de la limpieza de la casa y objetos personales. En caso de que la vivienda deba ser compartida por diferentes unidades familiares, se deberán llegar a acuerdos de organización y limpieza de las dependencias de uso común (cocina, sala, baño, escalera, portal).

akordioak lortu beharko dira.

10) Baliabidearen geletan, nahita edo arduragabekeria larriaren ondorioz egindako kalteengatik erantzutea.

10) Responder de los daños causados intencionadamente o por negligencia grave, en las dependencias del recurso.

11) Deba Udalak baimendu ez dituen pertsonei etxebizitza okupatzen / erabiltzen ez lagatzea, pertsona horiekiko senidetasuna edo harremana edozelakoa delarik ere.

11) No permitir la ocupación/uso de la vivienda a personas no autorizadas por el Ayuntamiento de Deba, independientemente del tipo de parentesco o relación que tenga con ellas.

12) Zerbitzuaren giltzen kopia ez egitea, eta giltzak beste pertsonaren bati ez lagatzea. Egonaldia bukatutakoan, giltzak etxebizitzaren ardura duen pertsonari eman beharko zaizkio.

12) No realizar copia de las llaves del servicio ni dejarlas a otra persona. Al finalizar la estancia deberá entregar las llaves a la persona responsable del piso.

13) Baliabidean animaliarik ez edukitzea, txakur gidariei buruzko azaroaren 17/1997 Legean aurreikusitako kasuetan, edo baliabideaz arduratzen den erakundeak baimentzen dituen salbuespenezko kasuetan izan ezik.

13) No tener animales en el recurso, salvo en los términos contemplados en la Ley 17/1997, de 21 de noviembre, de perros-guía, o en otros casos excepcionalmente autorizados por la entidad de la que depende el recurso.

14) Etxebizitzan inolako irabazizko jarduerarik ez egitea.

14) No desarrollar en el piso actividad lucrativa alguna.

15) Higienearen aurkako materialik edota material arriskutsurik ez gordetzea. Berariaz debekatuta dago armak edukitzea.

15) No almacenar materiales antihigiénicos y/o peligrosos, prohibiéndose expresamente la tenencia de armas.

16) Legezkoa (alkohola, tabakoa) edo legez kanpokoa den inolako substantziarik ez kontsumitzea.

16) No realizar ningún tipo de consumo de sustancia sea legal (alcohol, tabaco) o ilegal.

17) Zerbitzuan gertatzen diren kalte, konponketa edo hobekuntza premia guztiak dagokion Gizarte Ongizate Sailari aditzera ematea. Ildo horretatik, erabat debekatuta egongo da edozein

17) Comunicar al Departamento de Servicios Sociales correspondiente cualquier desperfecto o necesidad de arreglo o mejora en el servicio, prohibiéndose expresamente cualquier

konponketa egitea, horretarako baimenik izan gabe. Jaiegunetan edo Udal Zerbitzuen funtzionamendu ordutegitik kanpo gertatzen diren larrialdietan bakarrik izango du pertsona onuradunak matxura bat bere kabuz konpontzeko aukera. Kasu horretan, ahalik eta azkarren emango da konponketaren berri, eta nolanahi ere, konponketa egin ondorengo 72 orduak igaro baino lehen.

intervención en este sentido sin su autorización previa. Únicamente se permitirá el arreglo de una avería por iniciativa de la persona beneficiaria en situaciones urgentes producidas en festivos o fuera del horario de funcionamiento de los Servicios Municipales, en cuyo caso se pondrá en conocimiento de estos en cuanto sea posible y, en cualquier caso, antes de las 72 horas siguientes.

18) Etxebizitzara sartzen den unean, etxebizitzan dauden altzarien eta tresnen inbentarioa sinatzea. Egonaldia bukatutakoan inbentarioa egiaztatuko da, baita etxebizitza eta altzariak egoera onean daudela ere. Kalteren bat baldin badago edo inbentariatutako ondasunen bat falta baldin bada, erabiltzaileak hori konpontzeko edo erosteko gastuak ordaindu beharko ditu. Gastu horiek ordaintzeko epea eta baldintzak inbentarioaren agirian bertan jasoko dira.

18) Firmar un inventario de los enseres y ajuar de la vivienda al entrar en el Piso. Al finalizar la estancia se comprobará el inventario, así como el buen estado del Piso y el mobiliario. En caso de desperfecto o de falta de algún bien inventariado la persona usuaria está obligada a cubrir los gastos de su reparación o compra. El plazo y las condiciones en que deberán abonarse estos gastos figurarán en el mismo documento del inventario.

19) Ezinbestekoa izango da gaua etxebizitzan egitea. Etxe bizitza uzteko beharra izanez gero, dagokion Gizarte Zerbitzuen Sailari eman beharko zaio horren berri, eta honek izango du egindako eskaera ebazteko eskumena.

19) La pernocta será obligatoria. En caso de necesidad de ausentarse, se deberá comunicar al Departamento de Servicios Sociales quien tendrá la facultad de resolver la solicitud realizada.

20) Banakako edo familiaren arreta-plana, gizarte zerbitzuek egin dutena, betetzea.

20) Cumplir el plan individual o familiar de atención elaborado desde los servicios sociales de base.

21) Gizarte zerbitzuetako langileei edo horiek baimendutako beste pertsona batzuei etxebizitzan sartzen uztea.

21) Permitir el acceso al personal de servicios sociales u otras personas autorizadas por estos.

22) Dagokion Gizarte Zerbitzuetako Sailak egiten dituen adierazpen guztiak betetzea.

22) Cumplir con todas aquella indicaciones que se realicen desde el Departamento de servicios sociales correspondiente

**III. KAPITULUA. ETXEBIZITZAN SARTZEKO PROZEDURA.**

*5. Artikulua. Prozedura arrunta.*

HASIERAKO ESKAERA

Etxebizitzan sartzeko hasierako eskaera Debako Udalerriko Gizarte Zerbitzuen bitartez egin beharko da. Zerbitzuak egoeraren larritasunak eskatzen duen arintasunarekin tramitatu beharko du eskaera. Eskaera, berariaz formalizatutako eskaera-orrian egin beharko da, eta eskatzaileak edo legezko ordezkariak sinatu beharko du.

Prozesuaren edozein unetan, interesdunak bertan behera utzi ahal izango du eskaera, eta hori idatziz aditzera eman beharko du. Honen ondorioz, artxibatu egingo da espedientea.

TRAMITAZIOA ETA BALORAZIOA

Eskaeraren tramitazioa eta balorazioa Debako udalerriko Gizarte Zerbitzuetako teknikariek egingo dute. Horiek, nahitaez, txosten bat egin beharko dute ondorengoa zehazteko:
-Pertsona eskatzailearen identifikazio datuak.
- Gainerako bizikidetza unitatearen identifikazio datuak.
- Lojamendua eskatzera behartzen duten inguruabarrak, araudi honen 2. artikuluan zehazten direnak.
- Harreran hartutako pertsonaren edo pertsonen egoera ekonomikoa.
- Lojamendua ematearen egokitasunari buruzko balorazioa. Balorazioa aldekoa bada, egonaldiaren iraupenari buruzko

**CAPITULO III. DEL PROCEDIMIENTO DE ACCESO**

*Artículo 5. Procedimiento ordinario.*

SOLICITUD INICIAL

La solicitud inicial de acceso se recogerá en los Servicios Sociales del Municipio de Deba, quienes deberán tramitarla con la inmediatez requerida por la urgencia de la situación. La solicitud, realizada en instancia formalizada al efecto, deberá estar firmada por la persona solicitante o su representante legal.

En cualquier momento del proceso, la persona interesada podrá desistir de su solicitud, en cuyo caso deberá hacerlo por escrito. Este hecho conllevará el archivo del expediente.

TRAMITACIÓN Y VALORACIÓN

La tramitación y valoración de la solicitud será realizada por los/las técnicas de los Servicios Sociales del municipio de Deba que elaborarán un informe preceptivo que determinará:
—Datos de identificación de la persona solicitante.
-Datos de identificación del resto de la unidad de convivencia
—Circunstancias que motivan la solicitud de alojamiento establecidas en el artículo 2 de este reglamento.
—Situación económica de la/s persona/s acogida/s.
—Valoración sobre la conveniencia de conceder el alojamiento y, en caso de que sea favorable, propuesta del

proposamena.
- Aldi horretan egin behar den esku-hartze profesionala.

- Harreran hartutako bizikidetza unitateak bere gain hartzen dituen konpromisoak.

Txosten hori eta bertan adierazten diren inguruabar guztiak egiaztatzeko beharrezkoa den dokumentazio guztia espedientearen parte izango da. Erabilgarritasunaren arabera, eta lehentasun hurrenkera ezarrita, ebazpen proposamena egingo zaio dagokion udal erabaki organoak.

Arau orokor gisa, larrientzat hartzen diren kasuek eta lojamendu premia handiena dutenek izango dute etxebizitza erabiltzeko lehentasuna.

Behin eskaera baloratu eta aztertu ostean, organo eskudunari helaraziko zaio, eta honek ebazpena emango du gizarte larrialdietarako etxebizitza lagatzeko eskaera onartzeko edo ezesteko.

EBAZPENA

Ebazpena, gehienez ere, 15 eguneko epean eman beharko da, eskaera Udalaren Erregistroan sartzen denetik hasita.

Arestiko paragrafoan aurreikusitako epea igaro eta berariazko ebazpenik eman ez baldin bada, ebazpena emateko betebeharra alde batera utzi gabe, uste izango da eskaera ezetsi egin dela, interesdunari hautazko birjarpen errekurtsoa edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa

tiempo de estancia.
—Intervención profesional a realizar en dicho periodo.

—Compromisos que adquiere la unidad de convivencia acogida.

Dicho informe y toda la documentación necesaria para acreditar las circunstancias que en él se señalen, formarán parte del expediente. En función de la disponibilidad y aplicando el orden de prioridad que a continuación se indica, se elevará la propuesta al órgano municipal decisorio correspondiente.

Como norma general tendrán prioridad en el uso, aquellos casos que se consideren de mayor gravedad y con mayor necesidad de alojamiento.

El órgano competente emitirá resolución estimando o desestimando la solicitud de cesión del piso de urgencia social.

RESOLUCIÓN

La resolución habrá de producirse en el plazo máximo de 15 días desde la entrada de la solicitud en el Registro municipal.

Transcurrido el plazo previsto en el apartado anterior sin que se haya adoptado resolución expresa y sin perjuicio de la obligación de resolver, se podrá entender desestimada la solicitud a efectos de permitir al interesado la interposición del recurso potestativo de reposición o

aurkezteko aukera emateko.

Nolanahi ere, nahitaezkoa izango da, pertsona etxebizitzan sartu aurretik, etxebizitza lagatzeko hitzarmena eta esku-hartze plana sinatzea. Eskatzaileak arestian aipatutako dokumentua sinatzen ez baldin badu, uste izango da zerbitzuari uko egiten diola.

*7. artikulua. Harreraren iraupena.*

Zerbitzua ematen baldin bada ebazpenean, harreraren iraupena agertu beharko da. Iraupena kasuaren ezaugarrien arabera ezarriko da, eta zerbitzuaren beharra eragin duen egoera konpontzeko aukeren arabera.

Oro har, iraupena 4 hilabete artekoa izan ahalko da, kontratua sinatzen den egunetik aurrera. Epe hau organo eskudunak emandako ebazpenaren bitartez bakarrik luzatu ahal izango da. Ebazpen horietan luzapenaren iraupena zehaztuko da, luzatzeko beharra egiaztatu ostean, baldin eta dagokion Gizarte Zerbitzuen Sailak aldeko txostena egiten badute. Edonola ere, udal etxebizitzan egiten den egonaldiaren gehienezko iraupena ezin izango da 8 hilabetetik gorakoa izan.

**IV. KAPITULUA. HARRERA IRAUNGITZEA.**

*9. artikulua. Harrera iraungitzea.*

Beharrezko espedientea izapidetu ondoren, eta Gizarte Zerbitzuen atalaren proposamenari jarraiki,

contencioso-administrativo.

En todo caso, será imprescindible la suscripción de un contrato de cesión de vivienda, así como de un plan de intervención por la persona antes del ingreso. En el supuesto de que el/la solicitante no suscribiera el mencionado documento se entenderá que renuncia al servicio.

*Artículo 7. Duración del Acogimiento.*

En caso de concesión del servicio, en la resolución deberá figurar la duración del acogimiento, la cual se fijará en función de las características del caso y las posibilidades de solucionar la situación que ha provocado la necesidad del servicio.

Con carácter general la duración podrá ser de hasta 4 meses considerados a partir de la fecha de la firma del contrato. Este plazo sólo podrá ser ampliado mediante resolución del órgano competente en la que se fijará la duración de la prorroga en los supuestos que, previa acreditación de la necesidad, sean informados favorablemente por el Departamento de Servicios Sociales. En cualquier caso, la duración máxima de permanencia en la vivienda municipal no podrá superar los 8 meses.

**CAPITULO IV. EXTINCIÓN DEL ACOGIMIENTO**

*Artículo 9. Extinción del acogimiento.*

Tras la instrucción del expediente oportuno, y a propuesta del departamento de Servicios Sociales, se

zerbitzua aurreikusitako eguna baino lehenago iraungitzeko erabakia hartu ahal izango da. Horretarako, udal organo eskudunak ebazpena emango du.

Ebazpen hori onuradunari jakinaraziko zaio.

Zerbitzua ondorengo arrazoiak tarteko IRAUNGIKO da:

—Harrera egiteko aurreikusi den denbora bukatzea.
—Erabiltzaileak zerbitzuari uko egitea.
—Heriotza.

—Zerbitzua eskaintzea eragin zuen arrazoia desagertzea.

—Zerbitzua emateko kontuan izan diren datuak ezkutatzea edo faltsutzea.

—Zerbitzua eskuratzeko eskatzen den baldintzaren bat galtzea.
—Zerbitzuaren jarraipena egiteko eska daitekeen agiriren bat ez aurkeztea.

—Beste erabiltzaile batzuei eta Udal langileei eraso fisikoak edo psikologikoak egitea.
—Erabiltzaileek dituzten beste betebehar batzuk, araudi honetan jasota daudenak edo kasu bakoitzean sinatzen den dokumentuan ageri direnak, behin eta berriz ez betetzea.
—Arrazoirik gabe etxebizitzatik joatea.
—Gizarte Zerbitzuetako langileei edo zerbitzu hauek baimendutako beste pertsona batzuei etxebizitzan sartzen ez uztea.
—Barne funtzionamendurako arauak ez betetzea.
—Familia Artatzeko Banakako Planaren baitan egin beharreko ekintzak eta

podrá determinar la extinción de la prestación del servicio antes de la fecha prevista para ello mediante resolución del órgano competente municipal.

Dicha resolución será notificada a la persona beneficiaria.

El servicio se EXTINGUIRÁ por los siguientes motivos:

— Finalización del tiempo previsto para la acogida.
—Renuncia de la persona usuaria.
—Fallecimiento.

—Desaparición de la causa de necesidad que generó la prestación del servicio.
—Ocultamiento o falsedad en los datos que hayan sido tenidos en cuenta para la concesión del servicio.
—Pérdida de alguno de los requisitos exigidos para acceder al servicio.
—No aportar la documentación que pudiera ser requerida para el seguimiento del servicio.
—Por agresión física o psicológica a otros usuarios o usuarias y al personal del Ayuntamiento.
—Por incumplimiento reiterado de otras obligaciones de las personas usuarias previstos en este reglamento, o en el documento que se firme en su caso.
—Por ausentarse sin justificación.
—Por no permitir el acceso al personal de Servicios Sociales u otras personas autorizadas por estos.

—Por incumplimiento de las normas de funcionamiento interno.
—Por incumplimiento de las acciones a realizar en el marco del Plan Individual

etxebizitza lagatzeko hitzarmena ez betetzea.
- Araudi Erregulatzailean ezarritako beste edozein betebehar ez betetzea.

familiar de Atención y del contrato de cesión de la vivienda
—Por Cualquier otro incumplimiento de las obligaciones establecidas en el Reglamento Regulador.

Zerbitzua iraungi egin dela adierazi ostean, erabiltzaileak zerbitzua utzi egin beharko du ebazpenean adierazitako epean.

Declarada la extinción, la persona usuaria deberá abandonar el servicio en el plazo indicado en la resolución.

*10. artikulua. Kaleratze administratiboa*

*Artículo 10. Desahucio Administrativo*

Araudi honetan aurreikusitako arrazoiren bat tarteko, edo emandako epea bukatu delako, etxebizitza utzi behar duten baina betebehar hori betetzen ez duten pertsonak nahitaez kaleratu ahal izango dira kaleratze administratiboaren bitartez, Tokiko Erakundeen Ondasunei buruzko Araudiaren 120. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako tramiteei edo hori ordezkatzen duen araudiari jarraiki.

En caso de que, por alguno de los motivos contemplados en este reglamento o por finalización del plazo concedido, las personas que deban abandonar la vivienda se negaran a hacerlo, podrán ser obligadas mediante desahucio administrativo siguiendo los trámites previstos en los artículos 120 y siguientes del Reglamento de Bienes de las Entidades Locales o normativa que le sustituya.

## V. KAPITULUA. ARAUBIDE EKONOMIKOA

## CAPITULO V. RÉGIMEN ECONÓMICO

*11. artikulua: Zerbitzua erabiltzearen ondorioz izango diren gastua*

*Artículo 11. Gastos derivados del uso del servicio.*

Udalaren kontura izango dira erkidegoari, argindarrari, gasari, urari, eraikina edukitzearekin edo erabiltzearekin zerikusia duten tasa edo zerga guztiei dagozkien gastuak, baita zaborrak biltzeko tasa ere, eta konponketen ondorioz sortu diren gastuak ere bai, gastu hauek harreran hartutako pertsonei egotz dakizkieken arrazoiengatik gertatzen direnean izan ezik

Serán a cargo del Ayuntamiento, los gastos de comunidad, electricidad, gas, agua, las tasas o impuestos de cualquier tipo relacionados con la tenencia o uso del inmueble, incluida la tasa de recogida de basuras, así como los gastos generados por arreglos, excepto que estos estén motivados por razones imputables a las personas acogidas.

**XEDAPEN GEHIGARRIA**

Araudi honetan jasotzen ez diren kasu guztietan, edo araudian aurreikusten ez diren kasu berezi guztietan, Gizarte Zerbituetako Sailak erabateko ahalmena izango du kasu bakoitzean egokitzat jotzen dituen neurriak proposatzeko.

**DISPOSICIÓN ADICIONAL**

En todos aquellos supuestos no recogidos en el presente Reglamento o todos aquellos casos especiales que pudieran presentarse no contemplados en el mismo, el departamento de servicios Sociales tendrá plena capacidad para proponer las medidas que considere conveniente en cada caso.

**III. ERANSKINA / ANEXO III:**

ESPAINIAKO AUZITEGI GORENAK KATALUNIAKO PROZESUARI BURUZ EMANDAKO EPAIAREN AURREAN, DEBAKO UDAL BATZAK HONAKO ADIERAZPENA ONARTU DU GEHIENGO OSOZ:

1. Debako Udalak ziurtatzen du demokraziaren adierazpen baketsua, indibiduala zein kolektiboa, gauzatzea eta herriari hitza ematea ez dela delitua. Hori horrela, urriaren 1eko erreferenduma tresna demokratiko eta zilegia izan zela, eta Kataluniak bezala Euskal Herriak ere, berezkoa dutela etorkizuna erabakitzeko eskubidea.

2. Debako Udalak argi eta garbi adierazten du ezin direla justifikatu Auzitegi Gorenak eta Estatuko botereek Kataluniako agintari eta gizarte eragileei bizkarreratutako auzia eta ezarritako zigorrak.

3. Debako Udalak nabarmentzen du Kataluniako Prozesuaren aurkako auziak eta epaiak Zuzenbide Estatuaren itxuragabetzea dakartela eta ezbaian jartzen dutela espainiar demokraziaren homologazioa nazioartean.

4. Debako Udalak azpimarratzen du euskal herritarrei zuzenean eragiten digula Estatu espainiarraren erantzun bortitzak, izan ere herrien borondatea era demokratiko eta baketsuz erabakitzea mozten baitu eta arazo politikoari tribunalen indarrez, 155. Artikuluaren ezarpenez edo erabakitze eskubidearen alde egiten dutenei edonolako neurri bidegabeak ezarriz irtenbide elkarrizketatu eta negoziatua bilatu ordez eta herriari galdetu beharrean.

5. Debako Udalak Estatuko botereei eskatzen die, espetxean dauden preso politikoak berehala aske utz ditzatela eta era berean, erbesteratu politikoen aurkako auzibideak bertan behera utz ditzatela.

6. Debako Udalak elkartasuna adierazten die Kataluniako preso eta erbesteratu politikoei nahiz haien etxekoei hala nola Kataluniako herriari eta erakundeei, eta gipuzkoarrei dei egiten diete bat egin dezaten herriari hitza ematearen aldeko ekimen baketsuekin, demokraziaren eta askatasunaren alde.